

## DROGA MENDEKOTASUNEI BURUZKO IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN 2015eko DEIALDIA Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritza

### **Proiektu motak:**

Arlo hauetako bateko ikerketa proiektuak izan beharko dute: oinarrizkoa, kliniko, soziala, epidemiologikoa, osasun publikoari buruzkoa edo osasun zerbitzuei buruzkoa; eta droga mendekotasunen alderdi desberdinak landu beharko dituzte. Proiektuen emaitzek aurrerapauso bat ekarri beharko dute mendekotasunen esparruan eta erabilgarriak izan beharko dute arlo horretako produktuak, prozesuak eta zerbitzuak sortzeko edo hobetzeko garaian.

Proiektuak banakakoak edo koordinatuak izan daitezke. Proiektu koordinatuek bi azpiproiektu edo gehiago barne hartuko dituzte eta bi ikerketa talde edo gehiagoren parte-hartzea izango dute. Ikerketa talde horiek erakunde desberdinetakoak edo erakunde bereko sail desberdinetakoak izango dira. Azpiproiektu bakoitzak ikertzaile nagusi bat izango du, eta hori arduratuko da azpiproiekturako proposatutako jardueren garapenaz.

### **Lehentasunezko ikerketa ildoak:**

1. Alkoholaren, kanabisaren eta antzekoen gehiegizko kontsumoaren prebentzio selektiboa eta aholku erakoa, nagusiki adingabeei zuzendua.
2. Mendekotasunen gizarte kostua.
3. Prozesu terapeutikoaren kalitatearen eta emaitzen hobekuntza.
4. Gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko estrategiak.
5. Espetxe inguruneetako jarduketak.
6. Lan arloko droga mendekotasunaren prebentzioa eta esku-hartzea.

### **Iraupena:**

Proiektuek 1, 2 edo 3 urteko iraupena izan dezakete.

### **Dokumentazioa:**

Dokumentu orokorrak (eskaera guztientzat):

- a) **I. eranskina:** Eskaera\*
- b) **II. eranskina:** Memoria zientifikoa eta ekonomikoa\*
- c) III. eranskina: Datuak kontsultatzeko baimena, UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatua
- d) IV. eranskina: Ardurapeko adierazpena, UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatua
- e) Ikertzaile nagusiaren eta taldeko kide guztien CVA
- f) UPV/EHUko Ikerketa Batzordearen txostena
- g) Lege ordezkaritzaren akreditazioa
- h) Identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia konpultsatua

**\*GARRANTZITSUA:** I. eta II. eranskinak ezin izango dira zuzentzeko epean aurkeztu. Beraz, dokumentu horiek epearen barnean aurkezten ez dituzten eskaerak baztertu egingo dira.

Dokumentu espezifikoak (proiektu bakoitzaren araberakoak):  
Kontsultatu zerrenda [hemen](#).

**\*GARRANTZITSUA:** Dokumenturen batek Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura behar badu, ikertzaile nagusiak posta elektronikoko bidez eskatu beharko du, helbide honetara idatzita: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus).

***Ikertzaile nagusiek bete beharreko baldintzak:***

- UPV/EHUREKIKO funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izatea, eskaera aurkezten duen unetik aurrera eta proiektuaren gauzatze-aldi osoan.

***Ikerketa taldeko kideek bete beharreko baldintzak:***

- UPV/EHUREKIKO funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izatea eskaera aurkezten duen unean.

***UPV/EHUTIK kanpoko langileak:***

- Laneko planean bakarrik agertu ahal izango dute.

***Aurrekontua egiteko:***

Gastu hautagarriak:

- a) Material inbentariagarria
- b) Ikertzaileen eta doktorego aurreko bekadunen kontratazioa
- c) Prestakuntza egonaldiak AEBn
- d) Proiektua gauzatzeko eta hedatzeko bidaietako gastuak
- e) Taldeko kideek ekitaldietan inskribatzeko gastuak

Zeharkako gastuak: % 15

Kontsultatu [hemen](#) aurrekontua egiteko eredia.

***Eskaerak aurkezteko azken eguna:***

**2015eko irailaren 30a, asteazkena.**

***Eskaerak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:***

- **Proposatutako langileen azterketa:** "I. eranskina" dokumentua [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera bidali behar da, beranduenez **irailaren 23an, asteazkena**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako (IE) langileek azter dezaten eta proposatutako langile guztiak eskaeran sar daitezkeela baieztatu dezaten.
- **Eskatutako aurrekontuaren azterketa:** "Aurrekontua" dokumentua [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera bidali behar da, beranduenez **irailaren 25ean, ostirala**, aztertua izan dadin.
- **Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura behar duten dokumentu espezifikoak lortzeko:** helbide honetara idatzita eskatu behar dira: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus). Horretarako epea **irailaren 28an, astelehena, goizeko 8:00etan** amaituko da.
- **Eskaera osatuen erregistroa eta aurkezpena:** IEko langileak arduratuko dira Leioako IEren bulegoan (Errektoretza eraikina, 2. solairua) jasotzen dituzten eskaera osatuak paper formatuan aurkezteaz. Horretarako, eskaerak **irailaren 30eko, asteazkena, goizeko 8:00ak** baino lehen aurkeztu beharko dira. Une horretatik aurrera, ikertzaile nagusiak arduratu beharko du eskaera epearen barnean aurkezteaz.

**GARRANTZITSUA:** Ahal izanez gero, eskaerak paper formatuan aurkeztu behar dira, aplikazioaren bidez aurkeztean sor daitezkeen arazoak saiheste aldera.

**UPV/EHUren datuak:**

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren UPV/EHUren datuak:

- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g.
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Legezko ordezkaria: Fernando Plazaola Muguruza
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

**UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:**

Telefonoa: 94 601 80 08

Faxa: 94 601 35 50

Helbide elektronikoa: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

**Osasun Ministerioarekin harremanetan jartzeko:**

Telefonoa: 91 822 60 70

Helbide elektronikoa: [pndinvestigacion@msssi.es](mailto:pndinvestigacion@msssi.es)

**Informazio gehiago:**

<http://www.pnsd.msssi.gob.es/delegacionGobiernoPNSD/convocatoriaSubvenciones/ong/proyeclnvestig.htm>